

ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIZ KONTRATATZEKO ETA LEHIAKETA ADJUDIKATZEKO MODUAREKIKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA.

1. KONTRATUAREN HELBURUA.

Baldintza-plegu hau oinarritzat duela egiten den kontratuak, lehiaketa honen bitartez hautatua izango denak, Sasieta Mankomunitatearen zerbitzura lan egiten duen lan-hitzarmeneko nahiz funtzionario den pertsonalaren babesa formaltzea du helburu laneko istripu eta lanbideko gaixotasunen gorabeheri buruzko erantzukizunei dagokienetan, horretarako Gizarte Segurantzako Laneko Istripu eta Lanbideko Gaixotasunen Mutua batekin Elkartze-hitzarmena sinatuta. Mutua hori, lehiaketa honen bidez aukeratuko da, eta aldi berean, Laneko Arriskuak Aurreikusteko azaroaren 8ko 31/1995 Legean ezarritako irizpideen arabera, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak egindako aldaketak kontuan hartuta, gertaera arruntengatiko denboraldiko ezgaitasun-zerbitzua eta Laneko Arriskuen Osotasunezko Prebentzio Zerbitzua sortu eta abian jartzea ere kontratatu egingo da.

2. EGIKARITZE-EPEA.

Kontratuaren egikaritze-epea, hitzarmena sinatzen denetik zenbatutako urtebetekoa izango da eta tazituki luzatutzat hartuko da urtebetekako denboraldiz, baldin eta Udalaren aurkako adierazpenik ez bada. Adierazpen hori, hilabetez aurretik egin eta jakinarazi behar du mankomunitateak. Ezein kasutan ere, kontratuaren iraupena, luzapenak sartuta orotara, ez da lau urte baino luzeagoa izango.

3.- LEHIAKETA-MOTA.

Ez da lehiaketa-motarik aurrez finkatzen, izan ere, adjudikaziodun Mutuak prestatutako zerbitzuen kostua, EGSI (Estatuko Gizarte Segurantzako Institutuak) abonatuak baitio mankomunitateak laneko istripu eta lanbideko gaixotasun kontzeptuengatik eskusiboki egindako ekarpenen kargura.

Gertaera arruntengatiko denboraldiko ezgaitasun-zerbitzua eta Laneko Arriskuen Osotasunezko Prebentzio Zerbitzua sortu eta abian jartzea kontratatzeari dagokionez, kontratuaren prezioa **3.000 €koa** izango da, BEZ barne. Prezio horrek bere barne hartzen ditu zerbitzutik ondorioztatutako kontzeptu eta gastu guztiak.

Kopuru hori jaitsiz, prezioa hobetu egin dezakete lehiakideek eta beren eskaintzetan Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne sartu behar dute, kontzeptu hau beti ere aparte azalduz.

Esleipen-prezioa, kontratuaren hasierako iraupenari dagokio. Ordainketa, hilabeteka hainbanatuta egingo da, bidezkoa den faktura aurkeztu eta Alkatetzak onetsita ontzat eman ondoren. Zenbatekoa, esleipena duenak adierazitako kontu korrontean egingo da.

4.- FINANTZAKETA.

Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuek kontratuaren betebeharrak finantzatzeko adina kreditu jasoko dituzte.

5.- MUTUAREN BETEBEHARRAK.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorren Testu Bateratua onartu zuen ekainaren 20ko 1/94 Erret Dekretu Legegileko 67. eta 68. artikuluetan xedatuaren arabera, hautatutako Mutuak EGSIrekin elkarlana egingo du Sasieta mankomunitateko plantilako izanik Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean kotizatzen duen pertsonalaren laneko istripu eta lanbideko gaixotasun gaien kudeaketan.

Sanitate-, prebentzio- eta berreskuratze-zerbitzuei dagokienetan, hautatutako Mutuak, laneko istripu eta lanbideko gaixotasunen Mutuekin elkarlanerako Araubidea onetsi zuen abenduaren 7ko 1993/95 Errege Dekretuko 12. eta 13. artikuluetan xedatua bete beharko du, martxoaren 12ko 428/2004 Errege Dekretuaren arabera aldatuta.

Bestalde, euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko, zein herritarren hizkuntza eskubideei erantzuteko, hautatutako Mutuak jardun horiek oinarritzen dituzten printzipioak hartuko ditu kontuan. Beraz, Sasieta mankomunitatearekiko harremanetan euskararen presentzia bermatu beharko du, ahoz zein idatziz.

6.- PROZEDURA ETA ADJUDIKATZEKO MODUA.

Kontratu honen adjudikazioa, prozedura irekiz egingo da, lehiaketa-modua erabiliz, Herri Administrazioen Kontratueterako ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen bidez onetsitako maiatzaren 18ko Herri Administrazioen Kontratueterako 13/95 Legeko 86. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- PROPOSAMENAK, DOKUMENTUAK ETA AURKEZTEKO EPEA.

Kontratazio honetako espedientea eta berarekin batera doazen dokumentu teknikoak, mankomunitate honetako bulegoan aztertu ahal izango dira 8,00etik 13,00era, lehiaketa-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Proposamenak, adierazitako lekuan eta orduetan aurkeztuko dira aipatutako iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatutako 15 eguneko epean.

Lehiatzaileek, bi kartazal itxitan (A eta B) aurkeztu behar dituzte proposamenak eta horietako bakoitzean, honako izenburu hau egon behar du: "LANEKO ISTRIPU ETA LANBIDEKO GAIXOTASUNETARAKO NAHIZ GERTAERA ARRUNTENGATIKO EZGAITASUN-ZERBITZUA ETA LANEKO ARRISKUEN OSOTASUNEZKO PREBENTZIO-ZERBITZUA LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO MUTUA HAUTATU ETA KONTRATUA EGITEKO LEHIAKETA IREKIAN ESKUHARTZEKO PROPOSAMENA."

Kartazaletako bakoitzean, Mutuaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-deiturak eta zer-nolako izaeraz egiten duen adieraziko da eta bi kartazalak ere sinatuta egon beharko dute.

"A" kartazalak, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izena izango du eta ondorengo dokumentuak izan behar ditu bere barnean:

a) Nortasun Agiria edota bere fotokopia eta pertsona juridikoen kasuan identifikazio fiskaleko kodea.

b) Eskaintza egiten duena ordezkari legez kreditatuko duen notaritzako ahalmena bere izenean aurkezten ez denean.

c) Lehiatzailea, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 20. artikulua izendatzen dituen kontratatze debekuetako ezeinetan ere sartuta ez dagoela kreditatzen duen aitortze erantzulea.

d) Zerga-obligazioen ordainketan eta Gizarte Segurantzaren egunera egotearen kreditazioak, hurrenez hurren dagokien erakundeek luzatutako ziurtagirien bidez eta horiek ezinezkoak badira, norberak zentzu horretan egindako aitortze erantzulea.

e) Mutua berari dagokion Erregistroan inskribatuta dagoela kreditatzen duen dokumentua.

f) Pleguetan ezarritakoaren murrizketarik gabe, kontratua hobeto egiteko lagun dezaketen aldaketa guztiak.

“B” kartazalak “ERREFERENTZIAK” izena izango du eta ondorengo dokumentuak izango ditu:

a) Ondorengo ereduaren arabeko proposamena:

..... jn. /and.
..... n helbidea duena, PK-zk.:, eta NA- zk.
..... duena, telefono-zk.: eta
IFK-zk.: izanik, Sasieta Mankomunitateak, mankomunitateko pertsonalaren laneko istripu eta lanbideko gaixotasunetako gorabeherak estaltzeko zerbitzuak eta gertaera arruntengatiko denboraldiko ezgaitasun-zerbitzuak nahiz Laneko Arriskuen Osotasunezko Prebentzio Zerbitzuak kargu egingo den Mutua baten zerbitzuak kontratatze deitutako lehiaketaren berri jakitera iritsi da eta ondorengoa aitortzen du:

- 1.) Ezagutzen dituela kontratu hau eraenduko duen Baldintza Administrazio Partikularren Plegua eta halaber gainerako dokumentuak ere eta beren osotasunean onartu eta espresuki beren menpe jartzen dela.
- 2.) Ordezkeri nauen Mutuak badituela ahalmen juridikoa eta behar adinako baliabideak deialdi honetako helburua burutzeko eta betetzen dituela eskatutako betebeharrak eta egun indarrean den legerian adierazitako debeku-kasuetako ezeinetan ere ez dagoela sartuta.

- 3.) Hautatua gertatzen bada, konpromezua hartzen duela beharizanen estaldura emateko, idazki honekin batera doazen dokumentuetan zehazten diren zerbitzuak eskainiz. Halaber, Gertaera arruntengatiko denboraldiko ezgaitasun-zerbitzua ematea eta Laneko Arriskuen Osotasunezko Prebentzio Zerbitzua sortu eta abian jartzeko konpromezua hartzen duela, urteko eurotako prezioan, B.E.Z. barne.

.....n, 2004koaren(e)an.

Sinadura:

b) Mutuaren Estatutuak.

c) Enpresa-memoria, lehiakidearen jardueraz oinarrizko datuak azaltzen dituen, baliabide pertsonalak, finantzarioak eta teknikoak adieraziz, enpresak dituen lan-tresna eta beharrezko bitartekoen zehaztasunak eskainiz, hala nola: pertsonala, instalazioak, ekipoak, materialak, elementu laguntzaileak, etab. eta horiek guztiak kontratu honen helburu den zerbitzuan erabiltzeko eta zerbitzu horri atxikitzeko konpromisoa. Memoria horretan halaber, zerbitzua prestatzeko modua ere adierazi egin behar da, eta, bertan, euskararen presentzia bermatzeko modua ere jasoko da, Baldintza Administrazioen Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan exijitutakoari jarraiki. Memoria, euskaraz aurkeztuko da gutxienez, edo euskaraz eta gaztelaniaz.

d) Erreferentzia ofizialak, bankuetakoak, sindikalak, ganbaretakoak eta zentro profesionalenak.

e) Helburu bera edo kidekoa izanik prestatutako antzeko izaeradun zerbitzuen zerrenda, eginak edo egitear daudenak adieraziz eta kasua bada, Herri Administrazioen arloan prestatutakoak bereziki aipatuz.

f) Lehiatzaileak ekartzeko ontzat jotzen duen beste edozein agiri, beti ere Administrazioarentzat, kontratua esleitzeko orduan interesgarri izan litekeela irizten badu.

8.- PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Aurkeztutako proposamenak, proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo lanegunean irekiko dira jendaurreko ekitaldian eta eguerdiko 12etan.

Egun hori larunbata izatea suertatuko balitz, kartazal itxiak irekitzeko ekitaldia, ondorengo lehen lanegunera aldatuko da.

9.- KONTRATAZIO-MAHAIA.

Kontratazio-mahaia, ondorengo era honetan osatu eta eratua izango da:

- LEHENDAKARIA: Sasieta mankomunitateko Lehendakaria
- 1. MAHAIKIDEA: Sasieta mankomunitateko Idazkaria
- 2. MAHAIKIDEA: Sasieta mankomunitateko Kontuhartzailea
- 3. MAHAIKIDEA: Sasieta mankomunitateko Zerbitziburua
- 4. MAHAIKIDEA: Sasieta mankomunitateko Ingurugiro Teknikaria
- IDAZKARIA: 1. Mahaikideak egingo ditu idazkaritza lanak

10.- ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA FORMALTZEA.

Aurkeztutako proposamen guztiak, Kontratazio-mahaiak aztertuko ditu eta ondoren kontratua esleitzeko proposamena egingo dio kontratazioa egin behar duen kontratazio-organoari.

Udal-interesentzat egokientzat jotzen den proposamena edo aldagaia zehazteko kontuan hartuko diren irizpideak eta irizpide bakoitzari emango zaion pisua edo balioa, ondoren aipatzen diren irizpideen arabera neurtuko dira, hasieratik amaierara garrantzia gutxituz joanik:

1. Bitarteko teknikoak, nola materialak hala pertsonenak, azkeneko hauek lanbide-mailen eta dituzten kontratu-moten arabera zehatuta, beti ere enpresak kontratuaren helburua betetzeko dituen zentroei dagozkionak izanik: **25 puntu.**
2. Eskaintzen diren zerbitzuak eta prestatzeko moduari buruzko memoria: **25 puntu.**
3. Enpresak dituen bere arreta-zentroak edota hitzartuak zeintzuk diren, azken horietan Mutuak duen partaidetzaren ehunekoa adieraziz eta zentro horiek Beasaingo udalerriarekiko duten hurbiltasuna: **20 puntu.**

Puntuen kopururik handiena, Beasainen kokatuta beren zentroak dituztenei emango zaizkie. Beasainen hitzartutako zentroak dituztenei **15 puntu** emango zaizkie.

4. Zerbitzu desberdinen arreta-egunak eta orduak: **20 puntu**.
5. Baldintza-plegu honetan ezarritakoarekiko eta aurreko irizpideekiko proposatzen diren hobekuntza erantsiak: **5 puntu**.
6. Gertaera arruntengatiko denboraldiko ezgaitasun-zerbitzua eman eta Laneko Arriskuen Osotasunezko Prebentzio Zerbitzua sortu eta abian jartzearen proposamen ekonomikoa: **5 puntu**.

Eskaintza onenari puntuaketa maximoa emango zaio (5 puntu alegia), enkanteko oinarritzko prezioari puntuaketa minimoa (0 puntu) emango zaio eta gaineratiko eskaintzak, muturreko balio berriek mugatutako lerro zuzenaren arabera baloratuko dira.

Lehiatzaile bakoitzak gehienera lor dezakeen puntu kopurua **100 puntukoa** izango da. Ondorio hauetarako, lehen aipatutako irizpideetako bakoitzak, esleituta duen puntuazioa du, baina ohartarazi egiten da, izendatutako balio hori, irizpide bakoitzarentzat, gehieneko puntuazioa dela eta irizpide bakoitza betetzen den mailaren arabera murriztua izan daitekeela.

Lehiatzaile guztien artean pleguan ezarritako baldintzak inork beteko ez balitu, Mankomunitateak lehiaketa esleitu gabe utziko du.

Esleipenaren jabe egiten dena, lehiaketaren eta esleipenaren iragarkien nahiz kontratua eskritura publiko bihurtzeko kostuen kargu egingo da, baldin eta esleipena eskuratu duenak azken baldintza hori hala eskatzen baldin badu.

Esleipena eskuratzen duena derrigortuta dago Mankomunitateak izendatzen dion datan, kontratua formaltzeko agiria izenpetzera.

11.- ZERBITZUAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA.

Zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskapena, Mankomunitateko Zerbitzuburuari dagokio eta honek Beasaingo Pertsonal Sailaren arduradunarekin koordinatuta kontrolatuko du. Kontratistari aginduak eman ahal izango dizkiote eta agindu horiek kontratistarentzat derrigorrez bete beharrekoak izango dira prestazioaren baimendu gabeko aldaketak eta kontratu honetan erabakitako baldintzen aurkakoak edota egun indarrean dagoen legeriako xedapenen aurkakoak ez diren bitartean.

12.- KONTRATUA DESEGITEKO ARRAZOIAK.

Kontratua desegiteko arrazoiak izango dira, Herri Administrazioetako Kontratuen 2/2002 Legeko 111., 214. eta 215. artikuluetan aurreikusitakoak. Gainera, Mankomunitateak kontratua ebatzi egingo du Mutuak aurreikusitako betebeharrak betetzen ez dituenean.

13.- MANKOMUNITATEAREN ESKUBIDEAK.

Mankomunitateari dagozkio kontratua interpretatu, bera betetzeak dituen zalantzak ebatzi, herri-interesezko arrazoiengatik aldatu, ebazpena erabaki eta ebazpen horren ondorioak zehaztea, beti ere, Herri Administrazioen Kontratu-legean ezarritako betebeharrak eta ondorioei lotuta eta horien barnean.

Horretarako diktatutako erabakiak, bide administratiboari amaiera emango diote eta berehala egikaritzaila izango dira.

14.- ESKUDUNTZAZKO ESKUMENA.

Bide administratiboa amaitzen duten erabakien aurka, helegite kontentzioso-administratiboa erabili ahal izango da Eskumen hori erregulatzen duen Legean xedatuaren arabera.

Era berean, kontratutik ondorioztatzen diren gai gatazkatsuak, administrazioaren aurkako eskumenpean jarritzat ulertuko dira, baina hala ere, bi aldeek erabaki dezakete, egun indarrean den legeriak ezarriaren arabera, beren gatazkak arbitrajepean jartzea.

15.- JARDUNBIDE JURIDIKOA.

Plegu honen arabera egindako kontratuak, izaera administratiboa izango du eta bertan aurreikusi gabe dagoen guztia, ondorengo hauetan xedatuaren baitan egongo da:

- Ekainaren 16ko Herri Administrazioen Kontratueterako 2/2000 Legea.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratu-legeko Araudi Orokorra onesten duena.
- Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailerak eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, zeinaren bidez onetsi zen Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua, Herri Administrazioen Kontratu-legean ezarritakoaren aurka ez doan heinean.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentziokoa, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak egindako aldaketak kontuan hartuta.
- Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onesten duena.
- 1997ko ekainaren 27ko Ministerioko Agindua, gaiarekiko 39/1997 ED eta indarrean dagoen gainerako legeria garatzen duena.
- Osagarri moduan, zuzenbide administratiboko gainerako arauen eta horiek ezean zuzenbide pribatukoaren bidez eraenduko da.

2004ko maiatzaren 5eko Lehendakariaren ebazpenez onetsia.

Beasainen , 2004ko maiatzaren 5ean